

ANTONIO TRUEBAREN BIZI-INGURUNEAN SAN GINES BIDEA EGOKITZEA

Lekua:	Galdames (Bizkaia)
Modalitatea:	Ondare berreskuratzea eta ingurumena
Helburua:	Antonio Truebaren bizi ingurunean San Gines bidea Egokitzea
Egunak:	Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18 – 26 urte
Plaza-Kopurua:	20
Mota:	Estatukoa
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Galdames Bizkaiko lurralde historikoan dago, Enkarterrin. Galdamesek eta haren inguruko mendiek betidanik izan dute lotura burdinaren meatzaritzarekin eta burdingintzarekin. Jarduera horiek herriaren orografia bera ere eraldatu dute, paisaia berezi bat eratuz.

Elementu arkeologikorik garrantzitsuena Arenazako haitzuloa eta bertan dauden margoak dira. Horrela, labar-artearen duen Bizkaiko laugarren haitzuloa da Arenaza. Era berean, Galdamesen Eskatxabelgo trikuharria dago, eta beste bost Picomayorretik Eretzarako bidean.

Antonio Trueba, herriko seme kuttunak zioen bezala, Galdames «bitxikeria historiko, arkeologiko eta naturalez betea dago, liburu bat osatzeko adina».



Honako hauek dira udalerriko herri nagusiak: Loizaga edo Concejuelo, Montellano, San Esteban Galdames, San Pedro Galdames (herriko auzo nagusia), Atxuriaga, Txabarri, Humaran eta Larrea.

Informazio gehiago:

Galdamesko Udala: <http://www.galdames.org/eu-ES/Orrialdeak/default.aspx>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

2016an hasi zen lanarekin jarraituz, Galdamesko Montellano auzoan kokatuta dagoen San Gines Bidearen egokitzapenarekin jarraitu nahi da. Antonio Trueba idazle ospetsua bertan bizi zen. Ventorro Errotaren eta iturriaren garbitasun lanak egingo dira. Halaber, seinaleztapena hobetuko da, jendearen hurbilketa errazteko San Gines Bidera.

Antonio Trueba Euskadin eta Madrilen ospetsua izan den idazle populista bat izan zen. Bere idatzietan Galdames herriko bizipenak kontatu zituen, haietako baten protagonista hura izanik («Apaiz Berria» <http://www.biblioteca.org.ar/libros/130030.pdf>)

Olerkariaren urratsei jarraikiz, paisaia berdez beteriko bide batean sartuko gara, eta antzinako bizitza eta historia gogoratzen ditugun bitartean garaiko ondarean birgaituko dugu. Ia erabat desagertuta dagoen *erota* bat, berriz martxan jarri beharreko *iturri* bat, Enkarterriko txoko honetako okintza-tradizioarekin jarraitzeko konponduko dugun *ogi-labe* bat edo *mendiko burdinola zahar* bat.



Gainera, gerra zibilak inguru horretan utzi zuen aztarna ezagutuko dugu. Miliziano baten gorpuzkia lurpetik atera dute honezkero, eta bada bide horren erdian hil zen asturiar bati buruzko kondaira bat. Akaso, bi aste hauetan aurkitu egingo dugu, eta gerran hiltzen diren guztiek jaso beharko luketen omenaldia eskaini ahal izango diogu.



ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren

ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Besteak beste, Guggenheim museora bisita, piraguak Bilboko itsasadarrean, Loizaga Dorrera bisita, Sopena Abentura...

Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiak parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo-zakua (ez dago izararik)
- Burkoa (behar baduzu)
- Garbitasun pertsonaleko artikuluak
- Dutarako eta igerilekurako toallak
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak
- Kapela eguzkitarako
- Eguzkitako krema
- Eguzkitako betaurrekoak
- Bainujantzia
- Txankletak
- Motxila txikia txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: San Gines bidea, Antonio Trueba bizi zen eremuan.

Ostatua: Parte-hartzaileek **udal-aterpetxean** egingo dute lo, Txabarri auzoan.

Aterpetxeak dauzkan gelak:

- 3 logela ohatzeekin
- Biltegi bat
- Dutzak eta komunak
- Sukaldea
- Egongela - jangela

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **Bilbon 18:00etan, TERMIBUS** geltokian.

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Galdamesen \(Bizkaia\) kokapen-mapa](#)

Galdameseko udalerria barnean dago kokatuta, Bizkaiko ipar-medebaldean eta enkarterriko zenbait udalerriren alboan: Muskiz, Sopusuerta, Gueñes...

Kotzez

Galdamesera sartzeko:

Bilbao Santander errepide zaharretik (N 634), Muskiz irteera hartuz egin dezakezu edota Zallako errepidetik (BI 3602) , Güeñesen desbideratuz.

Autobusez

Bilbao – Galdames - Sopusuerta A3337

Bilbotik irteerak: 13:15, 15:15 y 19:15etan (egunero)

Muskizetik irteerak: 6:15etan (lanegunak eta larunbatak) eta 14:30tan (jaiegunak)

Bilbao – Muskiz – Galdames A3336

Bilbotik irteerak: 21:45etan (egunero)

Muskizetik irteerak: 6:45 eta 7:45etan (egunero)

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).